

# ELEBITASUNEZKO DEKRETUAZ

TXILLARDEGI

«Este finalmente se manifestó en total desacuerdo con el actual Decreto Ley sobre bilingüismo» (egin, Maiatzaren 22-koan).

Eta batzuk harritu egin dira: «nola esan dezakek horrelakorik? nola liteke hori bera ere betetzen aski lan izango dugunik ez ikustea?».

Bartzelonan esan nuena, ordea, ongi bildu zuen egin-ek; dekretu famatu hori ontzat ematerik ez dagoela, Bartzelonan esan bainuen, eta beste anitz lekutan esan eta esango baitut. Zergatik?

Behin eta berriz eta hamaika bider esandakoa berresanez, euskara salbatuko bada, eta berriro ere Euskadi-ko semeen mintzabide bihurtuko bada, gaur dagoen diglosia gaidintuz lortuko da hori, eta ez bestela. Edo, zehazkiago esateko, eta Jose Ramon Etxebarriak zuzenki esana duena nik errepikatuz, gaur euskararen kontra dagoen diglosia. erdararen, edo bi erderen hobeki, kontrako diglosia bihurtuz lortuko da. Alegia, eta hitz apalagoz azaltzeko: gaur euskara alferrikako hizkera, eta erdarak ezinbesteko tresna, diren bezala; bihar erdarak bigarren mailako tresna (edo hirugarrenekoak, Santamariak Zarautz-en angelesari lehenasuna emanaz proposatu duen bidetik) eta euskara ezinbesteko tresna eginez. Hizkuntzaren mailako iraultza, horixe da, eta ez besterik. Finlandian, Txekoslovakian, Viet-Nam-en, Argelian, eta gainerakoetan ikusi den berbera. Hau ez egitea, inperialismoa betirako eta sakonkienik finkatzea besterik ez da.

Hitz batez: Elebitasunezko Dekretua (eta euskarari buruzko EDOZEIN GAUZA), DIGLOSIAREN ARABERA neurtu behar da. Diglosiaren arabera egiten ez diren neurketak eta irizpideak, hutsaren hurrena dira; eta kakoa ILUNTZEKO besterik ez dute balio.

Dekretu honek, beraz, zer balio du DIGLOSIAREN KONTRAKO burrukaren alderditik?

Lehen-lehenengo gauza: Euskal Herrian elebakarrak por ciento 77 diren bitartean (eta por ciento 10 edo 20 besterik ez izanda ere, mila aldiz erakutsi izan dudanez, euskara erabilteza ezinezko bihurtzen da), JAI DAGO. Lehen-lehenengo helburua, hortaz, Euskadiko biztanle GUZTIAK elebidunak izatea da. Eta, normalean, hizkuntzak haurtaroan ikasten direnez gero, gure lehen lehenengo helburua hau da: Euskadiko haur GUZTIEK, lehenengo hizkuntza gisa edo bigarren hizkuntza gisa, erdara ETA EUSKARA ongi erabilteza.

Alde batetik Nafarroa ez da sartzen. Hots, Nafarroak, dituen bi alderdiak kondatuz, ehun bat mila euskaldun ditu; eta erdaldundutako Nafarroan bizi diren euskotarrek, beren hizkuntza ezagutzeko eskubidea dute.

Bestetik, «gurasoen borondatea» eta «ahalbideak» aipatzen dira behin eta berriz; nik baino lehenago Muxikak eta beste ohartua dutenez, «borondate» hori erdarak ikasterakoan galdetu ere egiten ez delarik... Ez dago behartasunik: «erdal eskualdean» (zein ote azkenean?) batere ez; eta «euskal eskualdean» ere, mugatua, baldintzatua; batez ere euskara irakatsi ez-baina euskaraz, euskaraz-bidez, aipatzen denean.

Bigarren gauza: mass-media delakoez, prentsa, irratiaz, telebistaz batez ere, ezer ez du Dekretuak esaten. Hots, eskola bezain garrantzitsua da arazo hau. Euskal Telebistatik ez dugun bitartean, jai dugu.

Hirugarren gauza: administrazioaz, ezer ez. Udaletxeetan ikusten ari denez, ordean, ezinezkoa da eperik jartzea. Alegia: funtzionarioei eta kontzejalei euskaraz jakitea BEHARREZKO jartzetik ez dago. Ezta sortzi urteren buruan, (Donostian bezala). Inoiz ez. Erdaraz jakitea beharreakoa da, eta GAURTXE beharrezkoa. Euskara, berriz, inoiz ez; eperik ez jartzea, inoiz beharrezkoa ez izatea baita.

Laugarrena: irakaskuntza-maila gorenetan (Unibertsitate eta beste) legerik ez, arauik ez. Bego euskara haurren arazoa, behereko kulturari dagokion arazoa.

Hauxe guztia, ordea, DIGLOSIARI EUSTEA besterik ez da.

«Hori bera betetzeko ere... nahikoa lan!». Noski! Baina honek ez du ezer frogatzen. Argelia, Kongo, eta nahi dena, askatasunerako bidean jarri zirenean, lelo berberak entzun erazien zituzten inperialistek eta «harki»ek: «no están preparados todavía; ils ne son pas prêts encore»... Betor askatasuna halere! Ibil gaitezen ito-larrian, agertutako beharrei ezin erantzunga! Betor Dekretu hau, eta beste horrelako hamar! Eta alde honetatik, ongi etorria izan dadila, eta zorionak Santamariari.

Baina Dekretu honek ez du, INONDIK ERE, diglosi-arazoa konpontzen; eta hortaz ez da, INONDIK ERE, euskararen soluzioa, eta ez gutxiagorik ere. Eta jator aitortu du hau Santamariak berak Zarautz-en, Elebitasunezko Biltzarrean, joan den 27-an hau esan zuenean: «Kritikak? Dekretuak dituen ahuleziak? Geronek ikusi dizkiogu, inork ezer salatu baino askoz lehenago!»

Inperialismoak eta diglosiak eta betida-

niko zapalketak utzi gaituzten ahuleziak ez du ezer zuzenesten. Dekretu hori ez da aski. Dekretu horrek ez ditu bildu dagozkigun eskubideen apurrak baizik. Gure herriak ESKUBIDE OSOA DU bere hizkuntzari eusteko; eta ESKUBUDE OSOA DU horretarako behar diren legeak eta ekonomi-oinarriak lortzeko. Ez dugu ezer eskertu beharrik. Kontuz! Dekretu horrekin ere gure hizkuntzak ez du bizitzetik.

Honi buruz ezin egokiago datoz Paco Rodriguez galiziarren hitzak: «Os liberales coinciden por completo con los reaccionarios en que debe haber una lengua oficial obligada... O idioma da clase dominante debe ser a lingua oficial obligada... A posición dos liberais é moito máis «cultu» e «sotil». Son partidarios de que se permita dentro de certos lindeiros... a lingua materna, pero ao mesmo tempo defenden a obrigatoriedade da lingua oficial». Hots, Santiago-ko irakasle argiak... Lenin-en beraren hitzak idazten zituen hemen.

Eta erasten: «Dime como falas e direiche quen es». Eta Konstituzioaren pasarte hauek argiro alderatzen:

Art. 3: «La riqueza de las distintas MODALIDADES LINGÜISTICAS de España es un PATRIMONIO CULTURAL que será objeto de especial RESPETO Y PROTECCION».

Art. 46: «Los poderes públicos garantizarán la CONSERVACION y promoverán el ENRIQUECIMIENTO del PATRIMONIO HISTORICO, CULTURAL Y ARTISTICO de los pueblos de España».

Bi artikuluo hau diola: «as linguas nacionais pónense non mesmo plano que os museus, que os grandes edificios, como algo que non tén futuro, ao que hai que protexer, porque hai que esclerotizalo».

Eta hirugarrena berriro orain irakurtzweko eskatzen:

Art. 3: «El castellano es la lengua española del Estado. Todos los españoles tienen el DEBER de conocerla y el DERECHO a usarla»...

Kontrastea hor dago. Eta Dekretua Konstituzioaren semea da. Euskara FOLKLOREA da; eta folkloretzat hartzen da Madrillen. Itxuraz folklore, bestalde; zeren-eta Madrilleko politikaririk argituenean guk baino hobeki baitakite euskararen heriotza zer litzatekeen.

Dekretuari, beraz, sentidu horretan, ez. Nahiz erorten utzi diren apurrak uxtiatzeaz, eta azken muturreraino aprobetxatu beharraz, zalantza-izpirik ez badago ere.